

7. ANTOLATZAILEA ETA EPAI-MAHAIA

Oiartzungo Udaleko Gazteria eta Kirola Sailak, antolatzen du **Oiartzungo III. argazki lehiaketa** 'Argazkiez blai!'.

Epaimahaia, Oiartzungo Udaleko Gazteria eta Kirola Sailak izendatuko du eta udaleko ordezkarienez gain, argazkilaritzan adituak diren pertsonak aukeratuko dira. Epaimahaiaren erabakiak apelaezinak izango dira.

8. DATU BABESA

Datu babesen inguruko araudiarekin bat etorritik, lehiaketan bildutako datu guztiak Oiartzungo Udalaren ardurapeko datu base batean gordeko dira.

Parte-hartze prozesuan jasotako datu pertsonalak, oinarrietan eta www.gazteoiartzun.net/ARGAZKI-LEHIAKETA.pdf baldintzetan 'Argazki lehiaketaren webgunean izena eman' atalean azaltzen diren bezala tratatuko dira lehiaketaren kudeaketa egoki bat bideratzeko. Datu hauek ez zaizkie hirugarren pertsonari entregatuko. Datu hauek sartzeari, moldatze eta ezabatze, egunean dagoen araudiaren arabera egiterik izango da.

Argibide gehiago:

Gazte Informazio Bulegoa

Tel: 943 49 11 05
gazteinfo@oiartzun.org
www.gazteoiartzun.net

www.facebook.com/OiartzunGazteriaKirola



Mendiburu 5, behea, 20180 Oiartzun
Astelehenetik-Ostiralera 17:30-19:30
Larunbatetan 10:30-13:30




Argazkiez blai!



OIARTZUNGO UDALA
GAZTERIA ETA KIROLA SAILA

3 kategori ezberdin

29 urte arteko gazteentzat



Oiartzungo III. Argazki lehiaketa

Gipuzkoako gazteentzat

Argazkiak webgunera igotzeko epea Maiatzaren 1etik 31ra

2.600 € sarietan!!

Oiartzungo Udaleko Gazteria eta Kirola Sailak, **Oiartzungo III. argazki lehiaketa ‘Argazkiez blai!’** antolatzen du, honako **oinarrien** arabera:

1. PARTEHARTZAILEAK

- Gipuzkoako **gazteak** parte hartu dezakete (**29 urte artekoak, hauek barne**).
- Izen ematea, www.gazteoiartzun.net/ARGAZKI-LEHIAKETA.pdf araudiaren arabera egin beharko da.
- Parte hartzeak, lehiaketa honen oinarriak bere osotasunean onartzea suposatzen du.

2. GAIA

Librea.

3. KATEGORIAK ETA SARIAK

Haurrak (12 urte artekoak)

1. saria	200 € (materialean)
2. saria	100 € (materialean)
3. saria	50 € (materialean)
4. <i>Interneteko saria</i> *	80 € (materialean)
5. Oiartzungo onena.....	80 € (materialean)

Nerabeak (13-17 urte tartekoak)

1. saria	300 €
2. saria	150 €
3. saria	80 €
4. <i>Interneteko saria</i> *	100 €
5. Oiartzungo onena.....	100 €

Gazteak (18-29 urte tartekoak)

1. saria	600 €
2. saria	300 €
3. saria	200 €
4. <i>Interneteko saria</i> *	150 €
5. Oiartzungo onena.....	150 €

1) Parte-hartzaile bakoitzak gehienez sari bakarra jaso dezake

2) Sariak *eman gabe* gelditu daitezke

***Interneteko sariak**, www.gazteoiartzun.net/argazkiak webguneko erabiltzaileak bertan ematen dituzten botoen arabera izango dira, gutxienez 5 boto beharko direlarik sari hau jaso ahal izateko.

4. ARGAZKIAK

Baldintzak

- Parte hartzaile bakoitzak **gehienez 3 argazki** aurkeztetu ditzazke.
- Argazkiak, www.gazteoiartzun.net/argazkiak webgunetik bakarrik zintzilikatuz onartuko dira eta www.gazteoiartzun.net/ARGAZKI-LEHIAKETA.pdf araudiko **baldintzen arabera** (Oiartzungo Gazte Informazio Bulegoan ere eskura daitezke).
- Zureak ez diren **4 argazki baloratu** behar dituzu webguneko izartxo bidez
- Parte hartzaileen botoak kontutan hartuko dira bakarrik.
- Zureak ez diren **2 argazkietan iruzkin bana** utzi behar da.
- Argazkien egileak bere gain hartzen du egiletasun eta argazkiaren originaltasuna.
- **Baldintza guzti hauek betetzea ezinbestekoa izango da sarietako bat jaso ahal izateko.**
- Lan sarituak Oiartzungo Udalaren jabetzan geratuko dira, eta honek argitalpen eta berregintzaren eskubidea izango du, beti ere egilearen izena aipatuz.

Ezaugarriak

- Argazkien neurri eta pisuak:
 - Pisu **minimoa 500 Kb** eta **maximoa 3 Mb**
 - **JPG** formatuan
 - Oinarrizko ikuituak onartuko dira baina ez fotomontaiak

Argazkiak, sarituen zerrenda eman eta gero, hilabete batez egongo dira ikusgai www.gazteoiartzun.net/argazkiak webgunean. Ondoren, irabazi ez dutenak ezabatu egingo dira eta sarituentzako espazio bat egokituko da aurrerantzean bertan ikusgai izateko.

5. EPEAK

Argazkiak www.gazteoiartzun.net/argazkiak webgunera igotzeko epea **maiatza-ren 1etik 31ra**, biak barne, izango da. Sarituak, uztailan ospatuko den sari banaketa saioan emango dira ezagutzera.

6. ERAKUSKETA

Kategori bakoitzean irabazi duten argazkiekin erakusketa bat antolatuko da Oiartzungo Udal Liburutegian.

ERROR: syntaxerror
OFFENDING COMMAND: --nostringval--

STACK:

/Title

()

/Subject

(D:20110413110802+02'00')

/ModDate

()

/Keywords

(PDFCreator Version 0.9.5)

/Creator

(D:20110413110802+02'00')

/CreationDate

(Usuario)

/Author

-mark-